


Groenlandia erosi nahi dute



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Groenlandia, X. mendearen amaiera. Lehen esploratzaile eta kolono eskandinaviarrek uhartera iritsi ziren. Baina XV. menderako kokaleku horiek abandonatuta zituzten eta jatorrizko inuitak geratu ziren. Baina 1721an, Hans Egede misiolariak espedizio bat antolatu zuen eta kolonoak egungo Nuuk hiri inguruan kokatzen hasi ziren. Orduz geroztik, Groenlandia Danimarkako lurraldea da, ofizialki erresumara 1953an atxiki arren. 1979an, erreferendum bidez, lurralde autonomo estatusa lortu zuen, eta 2009an beste erreferendum batek eskumen gehiago eman zizkion.

Danimarkako Gobernuak berriki adierazi du groenlandiarrek beraiek erabakiko dutela beren etorkizuna. Hau da, autodeterminazio eskubidea aitortu die uharterko 56.000 biztanleei –daniarren nahia erresumaren barruan geratzea dela azpimarratu arren–.

Baina Groenlandiaren bidean beste eragile garrantzitsu bat agertu zen aspaldi: AEBak. Groenlandia erosteko Trumppek adierazitako asmoa ez da berria.



AEBetako armadak Groenlandia okupatu zuen Bigarren Mundu Gerran, alemaniarrek Danimarka okupatu ondoren.

1867an, AEBek Alaska Errusiari erosi ziotenean, Washingtongo politikari eta intelektualek munduko uharte handienarekin berdin egitea eskatu zuten.

Baina ez zuten lortuko Groenlandia zapaltzea Bigarren Mundu Gerra arte. Danimarka alemaniarrek okupatuta, AEBetako armadak Groenlandia okupatu zuen. Daniar Defentsarako Errege Eskolako kide Mark Jacobsenen hitzetan, “hasieran, Groenlandiaren okupazioa Da-

nimarkaren gonbidapena izan zen ia, nazien mehatxua zela eta, baina gerra amaitzean Danimarkak esan zuen mehatxua amaitua zela eta erretiratu zitezkeela”. Jakina, AEBak ez ziren erretiratu, eta mehatxu sobietarren aitzakian, hamarkada luzetan jarraitu dute.

1946an James Byrnes AEBetako estatu idazkariak beste eskaintza bat luzatu zuen: uharterean truke 100 milioi dolar ordaintzeko prest zeuden, urrezko lingotetan. Daniar gobernuak ezezkoa esan zuen. Baina 1951n, AEBetako armadak uhartera uzteko inolako asmorik ez zeukala ikusita, amore eman eta estatubatuarren

presentzia arautzeko akordioa sinatu behar izan zuen.

Militarki gune estrategikoa zen orduan Groenlandia. Gaur, irlaren %80 hartzen zuen izotzak atzera egin ahala, itsasoz merkataritza bide berriak irekitzen ari dira eta, lehorrean, baliabide naturalak, hala nola burdina eta uranioa, errazago ustiatu daitezke. Finean, Groenlandia nahi dute ukatzen duten klima aldaketari zukua ateratzeko. ●



Yersinia pestis Egipton

Duela 3.300 urteko egiptoar momia batean *Yersinia pestis*-en arrastoak topatu berri dituzte, hau da, VI. mendean Justinianoren izurria eta XIV. mendean Izurri Beltza eragin zuen bakterioarenak. Adituek orain arte uste zuten garai hartan izurria soilik Eurasian hedatu zela, baina aurkikuntza honek ikerketa ildo bat zabaltzen du, Antzinaroan Afrikan ere,

Nilo ibaiaren bailaran behintzat, izurri agerraldiak izan zirela esan nahi baitu. Hipotesia ez da guztiz berria, Burnaburiash errege babiloniarren gutun batean eta Tutankhamonen ediktu batean izurriaren aipamenen bat egiten zelako, baina orain, lehenengoz, froga zientifiko batek bermatzen du testu zaharrek jasotakoa. ●